

Zientziak: natura zientziak, biologia, fisika eta kimika

Larramendi Ikastolako Kontratazio Batzordeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza **ZIENTZIAK** emateko irakasle baten kontratazioa egin behar du: **natura zientziak, biologia, fisika eta kimika**.

Eskaintzen da:

- Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikastolen Lan Hitzarmena.
- Behin behineko lan kontratua.
- Epea: irailaren 1etik abuztuaren 31 bitartean.
- Jornadaren %90-%100 bitartean.

Gutxieneko eskakizunak:

- Zientzia Esperimentalen eta Osasunaren arloko edozein lizentziatura-titulu edo Osasun Zientzietako edozein titulu ofizial. Zientzien edo Osasun Zientzien ezagutza-adarreko graduatua edo baliokidea, eta horrez gain, irakaskuntzako esperientzia edo goi-mailako prestakuntza egokia egiaztatzea dagokion gaia.
- Euskara: C1 edo baliokideak.
- Atzerriko hizkuntza: Ingelesean gutxienez B2 titulazioa edo baliokidea.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra.

Kontutan hartuko da:

- EKI proiektuaren ezagutza maila.
- Ikaskuntza kooperatiboaren ezagupen maila.
- Lan-taldean aritzeko gaitasuna.
- Ikastolen Elkarteko proiektuen ezagupen maila.
- Ikastola mugimenduarekin harremana.

Interesatuak CV eta bertan aipatzen diren baremaziorako agiriak aurkeztu beharko dituzue [ikastolako web orrialdearen](http://ikastolako.web.orrialdearen) bitartez.

Epea: 2025eko ekainaren 25etik uztailaren 4 bitartean (biak barne)

Lan elkarrizketak: uztailaren 7tik 11a bitartean. Lanean hasi, irailaren 1ean.